



# Eskandalua Bohemian

ARTHUR CONAN DOYLE

itzulpena:

Igone Aldalur Ariztondo, Rebeca Fernández Rueda, Maider Intxaurtieta Renteria



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

Arthur Conan Doyle

# ESKANDALUA BOHEMIAN

Itzultzailea: Igone Aldalur Ariztondo

Zuzentzailea: Rebeca Fernández Rueda

Editorea: Mainer Intxaurtieta Renteria

Sherlock Holmesentzat, hura da beti emakumea. Oso gutxitan entzun diot berari hura beste izen batekin aipatzen. Bere begietan, emakume guztiak gainditzen ditu; distiratsu, eta apartekoa da. Hala ere, ez pentsa Irene Adlerrekiko sentimendu berezirik zuenik. Edozein emozio, eta bereziki maitasuna, guztiz arrotza zitzaion bere adimen hotz, zehatz, baina ezinhobe orekatuari. Esango nuke inoiz izan den arrazoibide eta behaketa makina perfektuena zela, baina maitale bihurtzea bere izaerarekin kontraesanean sartzea izango litzateke. Ez zuen inoiz sentimendu gozoez hitz egiten, ironiaz eta mespretxuz ez bazen. Gizon behatzailearentzat, emozioak miresgarriak ziren—gizakien benetako motibazioak eta ekintzak agerian uzteko tresna bikainak. Baina arrazoibide trebatua duenarentzat, izaera fin eta doituan, halako emozioek desoreka eragin zezaketen. Horrek, beraz, zalantzan jar zezakeen bere pentsamenduaren fidagarritasuna. Beretzat, emozio bortitz batek arrazonamenduan eragitea kaltegarriagoa izango litzateke haren doitasun tresnak hondatzea baino: izan tresna batean hondarra sartzea edo potentzia handiko lupa bat haustea. Eta, hala ere, emakume bakarra zegoen harentzat, Irene Adler, nahiz eta haren oroitzapen zalantzazko eta badaezpadakoak izan.

Azkenaldian, apenas ikusi dut Holmes. Nire ezkontzak pixkanaka urundu egin gintuen elkarrengandik. Zoriontasunak eta etxeko ardurek, ohikoak etxe bat lehen aldiz duenarentzat, nire bizitza osoa hartu dute. Holmesek, berriz, beti bezala, gizarteaz nazka eginda, Baker Streeteko logeletan jarraitzen du, liburu zaharren artean galdua. Aste luzez kokaina eta handinahia txandakatzen ditu, hau da, drogaren ergeltzea eta bere izaera zorrotzari dagokion grina.

Krimenen ikerketak oraindik ere erabat liluratzen dute. Poliziak galdutzat jotako kasuak hartzen ditu, eta bere dohain intelektual eta behatzaile aparta baliatzen du horiek argitzeko. Noizean behin haren berriak iristen zaizkit: Trepoff-en hilketak argitzeko Odesara deitu zutela, Trincomaleeko Atkinson anaien tragedia konpondu zuela, eta, azkenik, Herbehereetako errege familiaren alde misio delikatu baina arrakastatsua burutu zuela. Hala ere, horiek guztiak prentsako irakurle arrunt orok entzuten dituen zurrumurruak besterik ez dira niretzat. Egiazki, ia ezer ez dakit nire garai bateko lagunaren bizitzaz.

Gau batez, 1888ko martxoaren 20a zen. Gaixo bati bisita egitetik nentorren, mediku lanetara itzulia bainintzen. Bideak Baker Street-era eramanez ninduen. Ezaguna zitzaidan ate baten aurretik igaro nintzen, eta nire ezkontza nahiz *A Study in Scarlet*-eko gertakari ilunak gogorarazi zizkidan. Une hartan, Holmes berriz ikusteko irrika piztu zitzaidan. Zertan zebilen jakiteko gogoan nuen, baita nola baliatzen zituen bere gaitasun paregabeak ere.

Bere gelak argiz beteta zeuden. Gorantz begiratu, eta haren irudi argala pertsianaren kontra agertu zen bi aldiz. Gelan barrena zebilen, urrats azkar eta etengabeekin. Urduri zirudien, burua makurtuta, eta eskuak bizkarrean zituela. Ondo baino hobeto ezagutzen nituen jarrera eta keinu horiek. Ez nuen zalantzarik. Lanean ari zen berriro. Drogek sortutako amets lausotik esnatu, eta kasu berri baten arrastoari ekina zion.

Txirrina jo nuen. Berehala, garai batean nirea izan zen gelara sarrarazi ninduen. Holmes inoiz ez zen adierazkorra. Oraingoan ere ez, baina uste dut poztu zela ni berriz ikustez. Apenas hitzik esan gabe, begirada goxo batez, besaulkian esertzeko keinua egin zidan. Zigarro-kaxa mahai gainera bota zuen, eta izkinan zegoen edari-kutxa eta gasogenoa seinalatu zituen. Gero, sutondoaren aurrean zutitu eta begirada zorrotz batekin begiratu zidan.

—Ezkon bizitzak on egiten dizu —esan zuen—. Watson, uste dut azken aldiz ikusi zintudanetik zazpi libra eta erdi hartu dituzula.

—Zazpi? —erantzun nuen.

—Bai, baina nik esango nuke zertxobait gehiago dela. Bai, apur bat gehiago, Watson. Eta berriro lanean ari zarela ikusten dut. Ez didazu esan ofizioari berriz ekingo zenionik.

—Eta zuk nola dakizu, ordea?

—Ikusi egiten dut. Dedukzio hutsa da. Nola dakidan azkenaldian blai eginda ibili zarela eta zure etxecko neskamea lodi samarra eta ezin baldarragoa dela?

—Ene, Holmes —esan nuen—, hau gehiegizkoa da! Mende batzuk lehenago bizi izan bazina, sorginkeria egotziko zizuten! Egia da ostegunean landan paseoan ibili nintzela eta egoera tamalgarrian itzuli nintzela. Baina jantziak aldatu ditut. Nola jakin duzu? Eta Mary Jane, bai, zuzen zaude, ez dauka konponbiderik. Emazteak kaleratzea erabaki du. Baina, berriro diot, nola ondorioztatu duzu?

Holmes barrezka hasi zen eta esku urduriak igurtzi zituen.

—Oso erraza da —esan zuen—. Begira, zure ezkerreko oinetakoaren barnealdean sei ebaki paralelo daude. Sutondoaren argiak ondo erakusten ditu. Norbaitek oso baldar ibili behar izan du lokatza zolan kentzerakoan. Beraz, ondorioztatzen dut eguraldi txarra egin duela eta zure neskamea oso traketsa dela.

—Eta zure lanbidea... Nire gelara iodoformo-usaina darizula sartzen bazara, eskuineko hatz erakuslean nitrato-orban bat baduzu, eta kapela altuan estetoskopoa gordetzeko koskor sumatzen bazaizu, ez dut asko pentsatu behar medikua zarela esateko.

Barre egin nuen, hain erraz azaltzen baitzuen dena.

—Zure azalpenak entzutean, denak hain sinplea dirudi! Nik ere egin nezakeela ematen du. Baina beti berdina gertatzen zait: hasieran ez dut ezer ulertzen, eta azalpena eman arte galduta egoten naiz. Hala ere, uste dut nire begiek zureek bezain ondo ikusten dutela.

—Hori da —erantzun zuen, zigarro bati sua eman eta besaulkian eroso jarrita—. Ikusi egiten duzu, baina ez duzu behatzen. Desberdintasuna argia da. Adibidez, korridoretik gela honetara igotzen diren eskailerak askotan ikusi dituzu, ezta?

—Bai, maiz.

—Zenbat aldiz?

—Ehunka aldiz, beharbada.

—Orduan, zenbat eskailera dira?

—Zenbat? Ez dakit.

—Hori da! Ikusi duzu, baina ez duzu behatu. Hori da kontua. Nik, berriz, badakit hamazazpi maila daudela, ikusteaz gain behatu egin dudalako.

—Bide batez, horrelako misterio txikiak interesgarriak iruditzen bazaizkizu, eta nire kasuak idazteko lana hartzen baduzu, agian hau ere interesatuko zaizu.

Mahai gainean zabalik zegoen orri bat hartu eta niri bota zidan. Paper lodia zen, arrosa kolorekoa.

—Azken postaz iritsi da —esan zuen—. Irakur ezazu ozen.

Eskutitzak ez zuen ez datarik, ez izenpetzerik, ezta helbiderik ere.

—Gaur gauean, zortziak laurden gutxitan, jaun batek bisita egingo dizu —zioen eskutitzak—. Gai oso garrantzitsu bati buruz aholku eske dator. Europako errege etxe bati eskainitako zerbitzuek erakutsi dute zure eskuetan halako auziak seguru daudela. Hori esan digute iturri guztiek. Ordu horretan egon zaitez zure gelan, eta ez harritu bisitariak maskara bat badarama.

—Hau da misterioa! —esan nuen—. Zure ustez, zer izan daiteke?

—Ez daukat daturik oraindik. Akats larria da teoria bat asmakerietan osatzea, inolako daturik izan gabe. Horrela, datuak teoriara moldatzen dira, eta ez teoria datuetara. Baina eskutitza bera... zer ateratzen duzu hortik?

Arretaz aztertu nituen idazkera eta papera.



—Hau idatzi duenak dirua dauka, ziurrenik —esan nuen, Holmesen metodoa imitatu nahian—. Halako paper bat ez dago merke. Oso sendoa eta lodia da. (koroa erdia balio du)

—Berezia, hori da hitz egokia —esan zuen Holmesek—. Ez da Ingalaterrako papera. Begira iezaiozu argiaren kontra.

Hala egin nuen, eta ehunduran “E” handi bat, eta “g” txiki bat ikusi nituen, baita “P” bat eta “G” handi bat ere “t” txiki batekin.

—Zer iruditzen zaizu? —galdetu zuen Holmesek.

—Ziurrenik, fabrikatzailearen izena edo hobeki esanda, monograma izango da.

—Ez horixe. “G” larria eta “t” xehea alemanierazko “Gesellschaft” hitzaren laburdura dira, konpainia esan nahi baitu. “P”k “Papier” esan nahi du, noski. Orain, “Eg” hori argitu behar dugu. Ikus dezagun liburutegiko apalategian.

Apaletik liburu lodi eta marroi bat hartu zuen.

—Eglow, Eglonitz... hemen dago: Egria. Alemaniera hitz egiten den herrialde batean dago, Bohemian, Carlsbadetik gertu. “Wallenstein heriotzaren lekua izategatik eta beirategi nahiz paper-fabrikengatik ezaguna.”

Holmesek irribarre egin zuen, eta garaipen gisa, zigarrotik ke-laino handi bota zuen.

—Orduan, papera Bohemian egin dute —esan nuen.

—Hain zuzen. Eta oharra idatzi duena alemaniarra da. Konturatu al zara esaldiaren eraikuntzaz? Frantses edo errusiar batek ez luke sekula horrela idatziko. Alemaniarrek bakarrik jartzen dituzte aditzak horrela, esaldien amaieran. Beraz, galdera da: zergatik idatzi digu alemaniar batek Bohemiako paper batean, eta, are interesgarriagoa, zergatik nahi du maskara batekin aurkeztu? Ea, oker ez banago, hortxe dator erantzuna ematera.

Holmes hizketan ari zela, zaldi-oholaren hots zorrotza entzun zen, eta gurpilak espaloiairen kontra marruskatu ziren. Ondoren, kanpaiaren tiraldi bortitza. Holmesek txistu egin zuen.

—Bi zaldi dira, soinua entzunda —esan zuen—. Bai, hala da —jarraitu zuen, leihotik begiratzuz—. Brougham dotore bat eta bi zaldi bikain. Ehun eta berrogeita hamar gineakoa bakoitza. Dirua dago jokoan kasu honetan, Watson, besterik ez bada ere.

—Uste dut joan egin beharko dudala, Holmes.

—Ez horixe, Doktore. Hemen geratu. Zu gabe galduta nago. Eta honek interesgarria dirudi. Ez zenuke galdu behar.

—Baina zure bezeroa...

—Ez kezkatu horregatik. Agian nik beharko dut zure laguntza, eta beharbada, berak ere bai. Hemen dator. Eseri besaulkian, Doktore, eta adi egon.

Eskaileretan eta pasabidean urrats astun eta pausatu bat entzun zen. Ateen aurrean gelditu, eta segidan, indar eta autoritatez jo zuten atea.

—Sartu! —esan zuen Holmesek.

Gizon erraldoi bat sartu zen, sei oin eta sei hazbete ingurukoa, bular zabala eta gorputz sendoa zituen, Herculesen antzekoa. Jantzi dotoreak zeramatzen, gehiegizkoak, agian, Ingalaterran. Mahuketan eta aurrealdean astrakan larruzko zerrendak zituen. Gainera, kapa urdin iluna zeraman, su-koloreko zetaz forratua, eta lepoan beril distiratsu batez lotua.

Orkatilen erdiraino iristen zitzaizkion botak, goialdea ile marroi leunarekin apainduta. Itxurak aberastasuna islatzen zuen, ukitu basatia zuen arren.

Eskuan kapela zabal bat zeraman, eta aurpegiko goiko aldea maskara beltz batek estaltzen zion, masail-hezurretaraino. Sartu berritan jarri zuen, dirudienez, oraindik eskua jasota baitzuen. Aurpegian ezpain lodi eta beheratuak nabarmentzen ziren, baita kokots luze eta zuzena ere. Zorroztasunetik burugogorkeriara igarotzen zenaren adierazgarri, beharbada.

—Nire oharra jaso al duzu? —galdetu zuen, ahots sakon eta zakarrez, alemanierako azentu nabarmenarekin—. Esan nizun etorriko nintzela.

Bioi begiratu zigun, ziur aski norengana zuzendu erabaki ezinik.

—Eser zaitetz, mesedez —esan zuen Holmesek—. Hau Watson doktorea da, nire lagun eta lankidea. Noizbehinka kasuetan laguntzera etortzen da. Norekin hitz egiteko ohorea dut oraingoan?

—Von Kramm Kondea bezala aurkez naiteke. Bohemiako noblea naiz. Pentsatzen dut zure laguna gizon zintzoa eta zuhurra dela, eta beraz, muturreko garrantzia duen kontu honen berri izan dezakeela. Hala ez bada, nahiago nuke zurekin bakarrik hitz egin.



Altxatu egin nintzen joateko asmoz, baina Holmesek eskutik heldu eta berriz eseriarazi ninduen.

—Biok ala inor ez —esan zuen irmo—. Niri esan diezadakezun guztia bere aurrean ere esan dezakezu. Kondeak sorbaldak altxatu zituen.

—Orduan, hasteko, honakoa argitu behar dizuet: sekretua, bi urtez behintzat, erabat isilean gordeko duzuela hitzeman behar didazue. Behin epe hori igarota, gai honek ez du garrantzirik izango. Une honetan, ordea, esan dezaket Europako historian eragina izan dezakeela.

—Hitz ematen dut —esan zuen Holmesek.

—Nik ere bai —erantsi nuen.

—Barka iezadazue maskara eramatea —esan zuen bisitari bitxiak—. Zerbitzari nauen pertsona ohoretsuak ez du nahi jendeak bere mandataria ezagutzea. Egiazki, oraintxe aipatu dudan titulua ez da benetan nirea.

—Ohartu naiz —erantzun zuen Holmesek, hotz.

—Egoera oso zaila eta delikatua da, beraz, neurriak hartzea ezinbestekoa da eskandalu handi bat saihesteko. Europako errege-familia garrantzitsu bat arriskuan dago. Argitasunez esanda, Bohemiako Ormstein etxea dago tartean.

—Horretaz ere ohartu naiz—murmurikatu zuen Holmesek, besaulkian eroso jarrita eta begiak itxiz. Bisitariak harrituta begiratu zion. Europa osoko aditu zorrotzena eta agente bizkorrena zela esan zioten, baina hura nagiz antzean zegoen. Holmesek pixkanaka begiak ireki eta bezero erraldoiari pazientziarik gabe so egin zion.

—Zure Maiestateak kontua azalduko balu, hobeto moldatuko ginateke.

Gizona zutitu eta gelan gora eta behera hasi zen, urduri. Bat-batean, etsipen keinuz, maskara kendu eta lurrera bota zuen.

—Arrazoia duzu! —oihukatu zuen—. Erregea naiz. Zertarako ezkutatu?

—Horixe, zertarako ezkutatu? —murmurikatu zuen Holmesek—. Zure Maiestateak ezer esan aurretik ere, banekien Wilhelm Gottsreich Sigismund von Ormsteinekin ari nintzela hizketan, hau da Cassel-Felsteingo Duke Handia eta Bohemiako errege oinordearekin.

—Ulertuko duzu —esan zuen gure bisitari bitxiak, berriro eseri eta eskuarekin bekoki zabala igurzten zuela—, ez nagoela ohituta horrelako kontuak neuk neure kabuz kudeatzera. Baina gaia hain delikatua izanda, ezin nuen beste norbaiten esku utzi neu arriskuan jarri gabe. Horregatik etorri naiz nortasuna ezkutatuta Pragatik, zurekin hitz egitera.

—Ba horixe egin, azaldu kontua —esan zuen Holmesek, berriro begiak itxiz.

—Laburbilduz, duela bost urte inguru Varsovian egonaldi luze bat egin nuen, eta bertan, Irene Adler abenturazale ospetsua ezagutu nuen. Ziurrenik ezaguna egingo zaizu izena.

—Doktore, begira ezazu nire aurkibidean—murmurikatu zuen Holmesek, oraindik begiak ireki gabe. Urte asko zeramatzan pertsona eta gaiei buruzko aipamen guztiak artxibatzen, eta beraz, zaila zen zerbait edo norbait aipatu eta berehala horri buruz informaziorik ezin emana.

Kasu honetan, Irene Adlerren biografia errabino hebrear baten eta itsas sakoneko arrainen inguruko monografia bat idatzi zuen ofizial baten artean aurkitu nuen.

—Begira dezagun... —esan zuen Holmesek—. Um...1858an jaioa, New Jersey. Kontraltua... Hara...La Scala... Um...Varsoviako Opera Inperialeko prima donna... Bai, horixe! Operatik erretiratua... Kontxo! Londresen bizi... Bai, argi dago! Zure Maiestateak, antza, harreman estua izan zuen emakume honekin, zenbait gutun arriskutsu idatzi zizkion, eta orain gutun horiek berreskuratu nahi ditu.

—Hain zuzen. Baina nola...?

—Ezkutuan ezkondu zineten?

—Ez.

—Ez dago inolako agiri edo frogarik?

—Ez.

—Orduan, ez dut ulertzen, Maiestate. Emakume honek gutunak erakutsiko balitu xantaia egiteko edo beste zerbaiten asmotan, nola frogatuko luke benetakoak direla?

—Nire idazkera.

—Beno, faltsutu daiteke.

—Nire gutun-paper pribatua.

—Lapurtu daiteke.

—Nire zigilu pertsonala.

—Imita daiteke.

—Nire argazkia.

—Eros daiteke.

—Baina biok agertzen gara argazkian.

—Hori bai arazo larria! Maiestate, ez zenuen ondo jokatu.

—Ero moduan aritu nintzen.

—Oso egoera arriskutsuan zaude.

—Orduan printzea nintzen. Oso gaztea. Oraindik orain, hogeita hamar urte baino ez ditut.

—Argazkia berreskuratu behar duzu.

—Saiatu gara, baina alferrik.

—Ordaindu beharko duzu.

—Ez du saldu nahi.

—Orduan, lapurtu.

—Bost aldiz saiatu gara. Bi aldiz etxea miatu diote nire aginduz. Behin, bidaia batean, bere ekipajea desbideratu genuen. Beste bi aldiz bidean gelditu dugu. Ez dugu ezer lortu.

—Ez duzue inolako arrastorik aurkitu?

—Bat bera ere ez.

Holmesek barre egin zuen.

—Benetan arazo polita da hau! —esan zuen.

—Baina niretzat oso larria —erantzun zion erregeak, serio.

—Bai, hala da. Eta zer egin nahi du berak argazkiarekin?

—Nire izena zikindu.

—Nola, ordea?

—Ezkontzeko nago.

—Badut horren berri.

—Clotilde Lothman von Saxe-Meningenekin ezkonduko naiz, Eskandinaviako erregearen bigarren alabarekin. Bere familia oso zorrotza da horrelako kontuetan; eta emakumea bera ere, bereziki duintasun handikoa da. Nire iraganaz zalantza izpirik ere izango balu, ezkontza bertan behera geratuko litzateke.

—Eta... zer dio Irene Adlerrek?

—Argazkia bidaliko diela mehatxu egin du. Eta ziur nago hala egingo duela. Ez duzu ezagutzen, baina burdinezko borondatea du. Emakumerik ederrena dirudi, baina gizabanako sendo baten adimena du. Nire ezkontza eragozteko edozer egiteko prest dago. Edozer.

—Ziur zaude oraindik ez duela bidali?

—Bai, erabat.

—Zergatik?

—Esan zuen ezkontza publikoki iragartzen den egunean bidaliko duela argazkia. Astelehenean izango da hori.

—Orduan, hiru egun ditugu oraindik —esan zuen Holmesek, nagiak ateraz—. Zorionez, beste kontu garrantzitsu batzuk ditut oraingoz esku artean. Maiestatea, Londresen egongo al zara?

—Jakina. Langham hotelean aurkituko nauzu, Von Kramm Kondea izenez.

—Ados. Aurrerapenen berri emango dizut idatziz.

—Mesedez, hala egin. Ezinegon handian nago.

—Eta diruari dagokionez?

—Ez dago mugarik.

—Erabat?

—Erreinuaren probintzietako bat ere emango nuke argazkia berreskuratzeke.

—Eta gastuetarako?

Erregeak orkatz larruzko poltsa astun bat atera zuen kaparen azpitik eta mahai gainean utzi zuen.

—Hirurehun libra urretan eta zazpiehun billetetan —esan zuen.

Holmesek ordainagiri bat egin zuen koadernoan eta eskura eman zion.

—Eta anderearen helbidea?

—Briony Lodge, Serpentine Avenue, St. John's Wood.

Holmesek oharrak hartu zituen.

—Eta azken galdera bat —esan zuen pentsakor—. Argazkia koadro baten tamainakoa al zen?

—Bai, halaxe zen.

—Hori entzunda, gabon, Maiestate. Laster berri onak izatea espero dut. Eta gabon, Watson —gaineratu zuen, erregearen zalgurdiaren gurpil-hotsak urruntzen ari ziren bitartean—. Bihar arratsaldeko hiruretan pasa zaitezke? Gustatuko litzaidake kontu hau lasaiago eztabaidatzea zurekin.

---

Hiruetan puntuan Baker Streeten nengoen, baina Holmes oraindik ez zen itzuli. Etxekoandreak esan zidan goizeko zortziak aldera irten zela. Sutondoan eseri nintzen, zai-zai, nahi adina denbora behar bazuen ere. Ordurako, ikerketa oso interesgarria iruditzen zitzaidan. Ez zuen aurreko bi krimenek zuten itxura ilun eta misterioitsua, baina kasuaren izaerak eta bezeroaren garrantziak interes berezia ematen zioten.

Holmesek egoerak azkar ulertzeko gaitasun handia zuen, eta haren arrazoiketa zorrotz eta argiak liluratzen ninduen. Erabiltzen zituen metodoak ikustea eta misteriorik korapilatsuenak nola askatzen zituen aztertzea benetako plazera zen niretzat. Erabat ohituta nengoen haren arrakasta etengabera, eta porrot egiteko aukeraz ere ez nuen sekula pentsatzen.

Lauak inguru, atea zabaldu zen. Mozkortuta zirudien zaldi-zain bat sartu zen: itxura txukungabea zuen, patila luzeak, aurpegia gorritua eta arropa narrasa. Holmesen itxuraldatzeko trebetasuna ezagutzen banuen ere, hiru aldiz begiratu behar izan nion bera zela konturatzeko. Keinu batez logelan sartu zen, eta bost minutu geroago agertu zen, bere ohiko tweed-jantziarekin eta dotore. Poltsikoetan eskuak sartu, sutondoan hankak luzatu eta minutu luzez gogotsu barrez aritu zen.

—Beno, benetan!—oihu egin zuen, eta, itoaldi baten ondoren, berriro barrez lehertu zen. Azkenean, atzeraka besaulkian etzan, eta ahulduta gelditu zen, erabat indarge.

—Zer gertatzen da?

—Ezin dibertigarriagoa da! Ez zenuke sekula asmatuko gaur goizean zertan ibili naizen, edo azkenean zer egin dudan.

—Ez dut irudikatu ere egiten. Ea, pentsa dezaket Irene Adler anderearen ohiturak aztertzen eta haren etxea zelatatzen ibili zarela.

—Hori ere bai, baina amaiera oso ezohikoa izan da. Kontatuko dizut. Gaur goizeko zortziak pasata irten naiz etxetik, lanik gabe dagoen zaldi-zain baten itxura hartuta. Zaldi-gizonen artean elkartasun handia dago, eta haietako bat bazara, dena jakin dezakezu. Berehala aurkitu dut *Briony Lodge*. Txalet txiki bat da, atzean lorategia dauka, eta aurrealdean, berriz, kaleraino iristen den eraikina, bi solairuko etxea. Atean *Chubb* giltzadura dauka. Eskuin aldean egongela handi bat dago, ondo apaindua, eta ia zoruraino iristen diren leiho luzeak ditu. Hala ere, haien giltzarrapoak oso eskasak dira, eta edozein umek ireki ahal izango lituzke. Atzealdean, ez dago aparteko ezer, pasabideko leihora egurtegiko teilatutik irits zaitzke. Etxea inguratu dut, eta alde guztietatik aztertu dudan arren, ez dut beste ezer interesgarririk ikusi.



Ondoren, kalean behera ibili naiz, eta, espero nuen bezala, lorategiko hormaren ondotik igarotzen den kale txikian, zaldi-gurdien txokoak aurkitu ditut. Bertan, zaldizain batzuei lagundu diet garbiketa lanetan.

Trukean bi txanpon, baso bat garagardo, tabako pixka bat eta Irene Adler andereari buruzko nahi adina informazio lortu dut. Gainera, auzoko beste sei pertsonaren bizitza osoa ere kontatu didate, eta batere interesik izan ez arren, entzun egin behar izan ditut.

—Eta zer jakin duzu Irene Adler andereaz?—galdetu nion.

—Ba, han inguruan gizon guztiak zoratuta dauzka! Mundu honetan, kapela baten azpian inoiz izan den emakumerik dotoreena omen da. Hala diote, behintzat, Serpentineko ukuilu gizon guztiek. Oso bizimodu lasaia egiten du: kontzertuetan abesten du, arratsaldeko bostetan irteten da kotxez paseatzera, eta zazpietan bueltatzen da afaltzera. Kantatzeko ez bada, apenas irteten da. Gizon bakar batek egiten dio bisita, baina oso sarritan, eta ordu asko igarotzen du berarekin. Ile iluna du, eta dotorea eta erakargarria da. Egunero joaten zaio, batzuetan, egunean birritan ere bai. Godfrey Norton jauna da, *Inner Temple*ko abokatua. Ikusten duzu zein baliagarria den gizon gidari horien konfiantza irabaztea? Dozenaka aldiz eraman dute Serpentineko ukuilutik etxera, eta haren inguruko informazio ugari dute. Eurek kontatutakoa entzun ondoren, berriro itzuli naiz *Briony Lodgera*, nire hurrengo urratsak eta eraso-plana pentsatzeko.

Godfrey Norton oso faktore garrantzitsua izan behar zuen afera honetan. Abokatua izateak arrisku puntu bat zekarren. Zein harreman zuten? Eta zergatik joaten zen hain sarri? Bere bezeroa ote zen? Hala bazen, litekeena zen argazkia hari eman izana. Baina maitalea izanez gero, aukera hori ez da hain gertaeraz. Galdera horren erantzunak zehaztuko zuen nire norabidea: Briony Lodgen lanean jarraitu ala arreta Templeko bulegoetara bideratu.

Xehetasun hauekin aspertzen ari naizela iruditzen zait, baina egoera ondo ulertu nahi baduzu, zailtasunak ere azaldu beharko dizkizut.

—Adi-adi nago —erantzun nion.

—Oraindik dena neure baitan aztertzen ari nintzen, Briony Lodgeren aurrean zaldi-gurdi bat gelditu zenean. Une batez, gizon bat bizkor jauzi eginez jaitsi zen. Itxura dotoreko gizona zen: ile beltza, aurpegi zorrotza, bibotea...Ez zen zalantzarik, entzunda nuen pertsona bera zen. Oso presaka zihoan; gidariari itxaroteko agindu zion eta, inolako zalantzarik gabe, berehala sartu zen etxera. Atean zain zuen morroiari jaramonik ere egin gabe, guztiz etxekoi jokatu zuen.

Etxean ordu erdi inguru eman zuen, eta tarteka egongelako leihoetan ikus nezakeen: urduri zebilen, alde batetik bestera paseoan, sutsuki hitz egiten eta etengabe besoak mugitzen. Irene, berriz, ez nuen inondik ikusi. Azkenean, oraindik eta urduriago irten zen. Gurdira igo aurretik, poltsikotik urrezko erloju bat atera eta arretaz begiratu zion.

Azkar ibili, deabruaren pare! —oihukatu zion gidariari—. Lehenengo, Gross & Hankey'sera, Regent Streeten; gero, Santa Monika elizara, Edgeware Roaden. Hogei minutuan iristen bazara, ginea erd irabaziko duzu!

Eta zitzu bizian abiatu ziren. Haien atzetik jarraitzeko asmoa nuen, baina bat-batean, landau txiki bat agertu zen. Gidariak jaka erdi lotuta zeraman, lepokoa oker, eta zaldi-uztarriak askatuta. Agerikoa zen presaka irten berria zela. Gurdia gelditu aurretik, Irene Adler ate nagusitik atera, eta azkar barrura sartu zen. Une batez baino ez nuen ikusi, baina nahikoa izan zen: edertasun aparta zuen, edozein liluratzeko modukoa.

—*Santa Monika elizara, John!*—oihukatu zion gidariari —Eta hogeit hamar minuturen buruan heltzen bazara, ginea erdi jasoko duzu!—

Hau ezin nuen galdu, Watson. Korrika haien atzetik joan ala landauaren atzean gorde erabaki behar nuela pentsatzen ari nintzen, baina justu orduan beste zaldi-karro bat agertu zen kaletik. Gidariak bi aldiz begiratu zidan, nire jantzi apalek ez baitzioten itxura onik ematen nire bezeroari, baina uko egiteko astirik izan aurretik barrura salto egin nuen.

Hau ezin nuen galdu, Watson. Ez nekien korrika jarraitu edo landauaren atzean ezkutatu, baina justuki une horretan, beste zaldi-gurdi bat agertu zen. Gidariak mesfidantzaz begiratu zidan, nire jantzi apalek ez baitzioten bezero aberatsaren itxurarik ematen. Hala ere, bi aldiz pentsatzeko astirik gabe, barrura salto egin nuen.

—*Santa Monika elizara!*—esan nion —Eta hogeit hamar minutuan eramaten banauzu, ginea erdi irabaziko duzu!—

Hamabiak hogeit hamar gutxi ziren, eta argi eta garbi zegoen gertatzen ari zena.

Zaldi-gidariak oso azkar gidatu zuen. Ez dut inoiz hain bizkor bidaiatu, baina hala ere, besteak lehenago iritsi ziren. Gurdia eta landaua ate aurrean zeuden, zaldiak izerditan. Gidariari ordaindu nion eta elizara sartu nintzen korrika. Barruan ez zegoen inor, nire aurretik etorritako biak eta tunika zuridun apaiza bakarrik. Hirurak aldare aurrean eztabaidan ari ziren.

Alde batera jo nuen, eliza barrura sartutako edozein bisitari bezala. Bat-batean, hirurak nire aldera biratu ziren, eta Godfrey Norton korrika etorri zitzaidan.

—Eskerrak Jainkoari!—oihukatu zuen—. Zuk balioko duzu! Zatoz, azkar!

—Zertarako?—galdetu nion.

—Hiru minutu besterik ez ditugu! Bestela, ezkontza ez da legezkoa izango.

Arrastaka eraman ninduten aldareraino. Konturatu orduko, ahopeka xuxurlatutako erantzunak errepikatzen ari nintzen. Ezagutzen ez nituen kontuen alde zin egin, eta Irene Adler eta Godfrey Norton ezkontzen lagundu nuen. Azkenean, guztia amaitu zen. Gizonak eskerrak eman zizkidan, emakumeak ere bai, eta apaizak irribarre egin zidan.


Bizitzan inoiz bizi izan dudan egoerarik arraroena izan zen. Barre egiteko arrazoia ere hori izan da. Antza, ezkontza-baimenean akats bat egon zen. Apaizak ez zuen ezkontzarik egingo lekukorik gabe. Zortez, ni

agertu nintzen une horretan bertan. Horrela, senargaia salbatu nuen, kalean norbaiten bila ibiltzetik. Emaztegaiak libra bat eman zidan, eta erloju-katean jarriko dut oroigarri gisa.

—Hau ustekabea!—esan nuen—. Eta gero, zer?

—Nire planak arriskuan zeuden.

Bikoteak berehala alde egiteko asmoa zuela zirudien. Beraz, azkar eta modu zorrotzean jokatu behar nuen. Baina zorionez, elizaren atarian banandu egin ziren. Norton Templera itzuli zen, eta Irene bere etxera.



—Bostetan parkera aterako naiz, beti bezala—esan zion berak.

Ez nuen besterik entzun. Biak norabide desberdinetan joan ziren, eta nik nire planak prestatzen jarraitu nuen.

—Zein dira zure planak?

—Txahala hotza eta garagardo bat—erantzun zuen, kanpaia joaz—. Egun osoa janariaz pentsatu gabe pasatu dut, eta oraindik lan gehiago daukat arratsaldean. Bide batez, Doktore, zure laguntza beharko dut.

—Pozik lagunduko dizut.

—Ez zaizu axola legea haustea?

—Batere ez.

—Eta atxilotua izateko arriskuan egotea?

—Helburua ona bada, berdin zait.

—Bai, arrazoia ezin hobea da!

—Orduan, prest nago!

—Banekien zugar fida nintekeela.

—Baina zer egin behar dut zehazki?

—Turner anderreak janaria ekartzen duenean azalduko dizut guztia.

Holmesek platerari ekin zion gogotsu.

—Jaten dudan bitartean azalduko dizut, denbora gutxi daukagulako. Ia bostak dira, eta bi orduren buruan ekintzaren tokian egon beharko dugu. Anderea—hau da, Irene Adler—zazpietan itzuliko da ibilalditik. Ordurako Briony Lodgen egon beharko dugu.

—Eta gero, zer?

—Hori niri utzi. Dagoeneko dena antolatuta daukat, baina argi utzi nahi dizut gauza bat: ez duzu inolaz ere esku hartu behar, edozer gertatuta ere. Ulertzen duzu?

—Neutrala izan behar dut?

—Bai, ez duzu ezer egin behar. Baliteke istiluren bat egotea, baina zuk ez duzu inolaz ere parte hartu behar. Azkenean, ni etxera sartuko naute. Lau edo bost minutu geroago, egongelako leihoa irekiko da. Orduan, leihoaren ondoan egon beharko zara.

—Ados.

—Barrutik seinale bat egingo dizut, eta orduan, emango dizudan objektua gelara bota beharko duzu. Adi berean, oihuka ezazu *sutea!*. Jarraitu beharreko argibide guztiak ulertu dituzu?

—Bai, guztiz.

—Ez da ezer arriskutsua —esan zuen, poltsikotik zilindro itxurako objektu bat ateratzen zuen bitartean—. Iturginek erabiltzen duten ke-suketako bat da, eta bere kabuz pizteko sistema bat dauka. Zuk bota besterik ez duzu egin behar. Oihu egiten duzunean, jendeak berehala erantzungo du. Orduan,

kalearen amaierara joan eta han itxarongo didazu. Hamar minutu barru han izango naiz. Ongi azaldu al dut?

—Beraz, neutrala izango naiz; leihoaren ondoan egongo naiz; zu behatuko zaitut; seinalea egiten duzunean objektua botako dut; *sutea!* oihukatuko dut; eta kalearen izkinan itxarongo dizut.

—Hori da, zehatz-mehatz.

—Orduan, lasai egon, ez dizut hutsik egingo.

—Primeran! Orain nire lekuan jartzeko unea da.



Holmes logelara sartu, eta minutu gutxiren buruan itzuli zen, elizgizon xalo eta atsegin baten itxura hartuta. Kapela beltz zabal bat zeraman, galtza zabalak eta zapi zuria. Aurpegian irribarre gozoa zuen, eta jakin-minez betetako begirada. Ez zen jantzi bakarrik aldatu; mugimenduak, espresioa eta izaera bera ere guztiz eraldatu zituen. Argi dago krimenetan espezializatzea erabaki zuenean, antzerkiak aktore bikain bat galdu zuela, baita zientziak arrazoitzaile zorrotz bat ere.

Seiak eta laurden ziren Baker Streetetik irten ginenean, eta zazpietarako hamar minutu falta zirenean iritsi ginen Serpentine Avenuera. Iluntzen hasia zen, eta kaleko argiak pizten ari ziren. Briony Lodgeren etxearen aurrean gora eta behera ibili ginen haren etxeratzearen zain. Etxea Holmesek deskribatu zuen modukoa zen, baina kalea espero baino jendetsuagoa iruditu zitzaidan. Inguru lasaia izan arren, giro bizia zegoen. Txoko batean, arropa xumez jantzitako gizon batzuk, zigarroa eskuan, algaraka ari ziren. Beste aldean, guraize-zorrotzaile batek lanean ziharduen, haurtzain-guardia batekin solasean, bitartean zenbait gazte dotorek zigarroak ezpain artean zituzten, harro eta lasai.

—Ikusten duzu? —esan zuen Holmesek, etxearen aurrean genbiltzan bitartean—. Ezkontza honek kontuak erraztu ditu. Argazkia arma bikoitz bihurtu da. Litekeena da berak ere ez nahi izatea Godfrey Norton jaunak argazkia ikustea, gure bezeroak bere printzesak ikusterik nahi ez duen bezala. Orain, galdera da: non aurki dezakegu argazkia?

—Non egongo da, bada?

— Ez du berekin eramango. Tamaina handiegia du emakumeen jantzi batean gordetzeko. Badaki Erregeak miatzeko agindua eman dezakeela, eta dagoeneko bi aldiz saiatu dira. Beraz, ez du berekin.

—Orduan, non gordeko du?

—Agian bankariaren edo abokatuaren esku utziko zuen. Baina ez dut uste. Emakumeak berez isilpekoak dira, eta nahiago dute sekretuak eurek gordetzea. Zergatik eman beste norbaiti? Ziur egon daiteke bere buruaz, baina ezin du jakin zer nolako presio politiko edo ekonomikoa egin diezaioketen bankari edo abokatu bati. Gainera, laster beharko du argazkia, eta eskura izan behar du. Horrek esan nahi du etxean daukala.

—Baina dagoeneko bi aldiz miatu dute.

—Beno! Agian ez zekiten non bilatu.

—Eta zuk nola bilatuko duzu?

—Ez dut bilatuko.

—Orduan?

—Berak erakutsiko dit.

—Baina uko egingo dio.

—Ezingo du.

Bat-batean gorpilen hotsa entzun genuen. Holmesek burua altxatu zuen.

—Hemen da haren gurdia. Orain, bete nire aginduak zehatz-mehatz.

Holmes hizketan ari zela, gorpilen argiek distira egin zuten etorbideko bihurgunean. Une batez, karroza txiki eta dotore bat agertu zen Briony Lodgeko atarian. Gelditu orduko, kale bazterrean zeuden bi gizon korrika hurbildu ziren atea irekitzera, nor baino nor lehen, txanpon bat irabazteko itxaropenez. Liskarra piztu zen haien artean, eta bi guardia ere nahasi ziren borrokan. Bakoitzak alde batekoa babestu zuen,

eta guraize-zorroztaile batek ere eztabaidan esku hartu zuen. Kolpeka ari zirela, bat-batean, karrozatik jaitsi berria zen emakumea, borroka bizian ari ziren gizonen erdian zegoen. Hauek aurpegia gorrituta zuten, ukabilkadez eta makil-kolpez elkar jotzen. Holmes oldarka sartu zen jendetzan, emakumea babesteko, baina haren ondoan zegoela, bat-batean oihu egin eta lurrera erori zen, aurpegia odolez beteta. Haren erorketak berehala eten zuen istilua: guardiek alde batera ihes egin zuten, eta kale bazterrean zegoen gainontzeko jendea bestaldean barreiatu zen. Bien bitartean, orain arte borroka ikusi baina esku hartu gabe egon ziren jantzi dotoreko hainbat lagun emakumeari laguntzera eta Holmes artatzera hurbildu ziren.

Irene Adler, oraindik horrela deituko diot, eskaileretan gora igo zen korrika. Baina ate ondoan geratu zen, atzera begira, gorputz liraina iluntasunean marraztuta, barruko argien kontra.

—Gizona oso larri dago? —galdetu zuen.

—Hilda dago! —oihukatu zuen batek.

—Ez, ez! Oraindik bizirik dago! —esan zuen beste batek—. Baina ospitalera iritsi aurretik hilko da.

—Gizon ausarta da —esan zuen emakume batek—. Bestela, lapurrek andrearen poltsa eta erlojua eramango zituzten. Banda bat zen, eta arriskutsua gainera. Baina begira, arnasa hartzen ari da!

—Ezin dugu hemen kalean utzi. Ekar dezakegu barrura, anderea?

—Bai. Ekarri egongelara. Han sofa eroso bat dago. Honantz, mesedez!

Poliki eta serio eraman zuten Briony Lodgera eta gela nagusian etzan zuten. Nik oraindik ere leihotik behatzen nuen guztia. Lanparak piztuta zeuden, baina pertsianak ez zeuden jaitsita, eta horri esker, Holmesi begira egon nintekeen. Sofan etzanda zegoen. Ez dakit une hartan damurik sentitu ote zuen antzesten ari zenagatik, baina nik neure burua inoiz baino errudunago sentitu nuen. Izan ere, emakume eder hark zauritua nola zaintzen zuen ikusi nuenean, sekulako lotsa sentitu nuen. Hala ere, orain atzera egitea Holmesi traizio egitea litzateke. Bihotza gogortu nuen eta gabardina azpitik atera nuen ke-suketia. Azken finean, pentsatu nuen ez diogula kalterik egiten; besterik gabe, beste bati kalte egitea eragozten ari garela.

Holmes bat-batean eseri zen sofan, eta arnasa hartzeko zailtasunak zituela iruditu zitzaidan. Neskame bat korrika hurbildu eta leihoa ireki zuen. Une berean, Holmesek eskua altxatu zuen, eta seinalea ikusita, ke-suketia gelara bota nuen, oihu eginez: **“Sutea!”**

Hitz hori ahotik atera orduko, inguruan zeuden guztiak —bai ondo jantzitakoak, bai xumeagoak; jaunak, langileak eta zerbitzariak— batera hasi ziren garrasika: **“Sutea!”**. Ke lodiak gela hartu eta leihotik kanpora irten zen. Jendea korrika ikusi nuen une batez, eta berehala entzun nuen Holmsen ahotsa barrutik, guztiei esanez alarma faltsua zela.

Jendetza nahasita zegoela, kale kantoira iritsi nintzen. Handik hamar minutura, Holmes nire ondoan zen berriro. Biok azkar urrunduko ginen zaratatik.

Isilik ibili zen minutu batzuez, Edgware Road aldera doan kale lasai batean sartu arte.

—Primeran egin duzu, Doktore —esan zuen Holmesek irribarrez—. Ezin hobea izan da. Dena prest dago.

—Lortu duzu argazkia?

—Badakit non dagoen.

—Nola jakin duzu?

—Berak erakutsi dit, esan nizun bezala.

—Oraindik ez dut ulertzen.

—Ez dut misteriorik egin nahi —esan zuen, barrez—. Oso erraza izan da. Kaleko jende guztia nire konplizea zen. Denak kontratatu nituen gau honetarako.

—Susmoa nuen.

—Borroka piztutakoan, eskuan pintura gorria neraman. Aurrera egin, lurrera erori, aurpegia odolez zikindu eta zauritu baten itxura hartu nuen. Trikimailu zaharra da.

—Hori ere igarri dut.

—Eta barrura eraman naute. Emakumeak ezin ninduen kanpoan utzi. Zer egin zezakeen bestela? Egongelara sartu naute, eta nire susmoak pizten zituen gelara. Bere logelaren eta beste gela baten artean zegoen. Ziurtatu nahi nuen. Sofan etzan naute, arnasa eskatu dut, leihoa ireki behar izan dute, eta hor izan duzu aukera.

—Nola lagundu zizun horrek?

—Funtsezkoa izan da. Emakume batek bere etxea sutan dagoela uste duenean, berehala korrika joango da baliotsuena dena hartzera. Berehalako erreakzioa da, guttiz instintiboa, eta behin baino gehiagotan erabili dut hori. Darlington eskandaluan baliagarri izan zitzaidan, eta Arnsworth gazteluko aferan ere bai. Emakume ezkondu batek bere haurrari helduko dio; ezkongabe batek, berriz, bitxi-kutxa hartuko du. Orain argi nuen gaurko emakumeak ez zuela etxean guk bilatzen dugun hori baino ezer baliotsuagorik. Beraz, argi zegoen haren bila joango zela.

—Sutearen alarmak primeran funtzionatu zuen. Keak eta oihuek edonor aztoratzeko modukoak ziren, are burdinezko nerbioak dituen norbaitentzat ere. Berak bikain erantzun zuen. Argazkia eskuineko kanpaiaren heldulekuaren gainean dagoen horma-panelean dago, panel lerrakor baten atzean. Segituan joan zen hara, eta apur bat ateratzen ikusi nion. Nik faltsua zela oihukatu nuenean, berriro gorde zuen, begirada bat bota zion ke-sua botatako leihotik irteten zen ke-lainoari, eta gelatik irten zen korrika. Ez nuen gehiago ikusi. Orduan altxatu nintzen, barkamena eskatu nuen eta etxetik alde egin nuen.

—Argazkia berehala eskuratzen saiatu ala ez zalantzan egon nintzen. Baina gidaria jada barruan zegoen eta arreta handiz begira ninduen. Behar baino azkarrago jokatzeak dena zapuztu zezakeen, beraz, hobe izan zen itxarotea.



—Eta orain? —galdetu nuen.

—Gure bilaketa ia amaituta dago. Bihar goizean erregearekin etorriko naiz hona. Zuk ere etorri nahi baduzu, ongi etorria izango zara. Egongelan itxarongo dugu, eta litekeena da emakumeak etorri orduko gu han ez egotea... ezta argazkia ere. Bere eskuekin berreskuratzea erregeari gustatuko litzaioke.

—Noiz joango zarete?

—Goizeko zortzietan. Ez da oraindik jaikita egongo, eta, beraz, errazagoa izango dugu. Gainera, presa dugu. Ezkontzak bere bizitza eta ohiturak guztiz alda ditzake. Berehala telegrama bat bidali behar diot erregeari.

Baker Street-era iritsi ginen eta atarian gelditu ginen. Holmesek giltza bila zerabilen poltsikoetan, bat-batean kalean pasatzen ari zen norbaitek esan zuenean:

—Gabon, Sherlock Holmes jauna.

Une horretan jende gehiago zebilen espaloian, baina hitzak, dirudienez, azkar igaro zen mutil argal batek esan zituen, ulster bat jantzita zermanak.

—Ahots hori lehenago entzun dut —esan zuen Holmesek, kale ilunera begira—. Nor demontre izan ote da?

---

Gau hartan Baker Street-en lo egin nuen, eta goizean, ogi txigortua eta kafea hartzen ari ginela, Bohemiako erregea bat-batean gelara sartu zen, urduri eta irrikan.

—Lortu duzu! —oihu egin zuen, Holmesen sorbaldak helduz eta haren aurpegira begiratzuz.

—Oraindik ez —erantzun zuen Holmesek.

—Baina itxaropena baduzu?

—Bai, badut.

—Orduan, goazen! Ez dut gehiago itxaron nahi.

—Karroza bat beharko dugu.

—Ez dago beharrik, nire brougham-a atean daukat zain.

—Hori bikaina.

Eskailerak jaitsi eta Briony Lodge-ra abiatu ginen berriro.

—Irene Adler ezkontuta dago —esan zuen Holmesek bidean.

—Ezkontuta? Noiz?

—Atzo.

—Baina norekin?

—Norton izeneko abokatu ingeles batekin.

—Baina ezin du bera maite!

—Nik uste dut baietz.

—Eta zergatik nahi zenuke hori?

—Horrela zure Maiestateak ez luke etorkizunean arazorik izango. Emakumeak senarra benetan maite badu, ez zaitu maiteko. Eta ez bazaitu maite, ez du zure planetan esku hartzeko arrazoirik.

—Egia da... Eta hala ere... Ai! Nire mailakoa izan balitz! Erregina bikaina izango zen...

Erregea isilik geratu zen, pentsakor, eta ez zuen hitzik egin Serpentine Avenue-ra iritsi arte.

Briony Lodge-ko atea irekita zegoen, eta emakume zahar bat eskaileretan zain zegoen. Behatoki ironiko batekin begiratu zigun, karrozan jaitsi ginenean.

—Sherlock Holmes jauna, ezta? —esan zuen.

—Neu naiz —erantzun zuen Holmesek, begirada galdezka eta harriturik zuela.

—Bai, nire andereak esan zidan litekeena zela zuk bisitan etortzea. Gaur goizean alde egin du senarrarekin, Charing Cross-eko 5:15eko trenean, Europako kontinentera.

—Zer!? —Holmesek atzera egin zuen, zurbil, harridura eta etsipena aurpegian. —Esan nahi duzu Ingalaterra utzi duela?

—Bai, eta ez da itzuliko.

—Eta dokumentuak? —galdetu zuen erregeak, ahots urratuz. —Den-dena galdu dugu...?

—Ikusiko dugu —erantzun zuen Holmesek. Zerbitzaria alde batera bultzatu eta egongelara sartu zen korrika, erregea eta ni atzetik genituela. Gelan nahasmena nagusi zen: altzariak desordenatuta, apalak hustuta, tiraderak irekita... dena presaka arakatu izan balu bezala. Holmesek kanpaiaren kordara heldu, hormako panel irristakorra ireki eta eskua sartu zuen. Bertatik argazki bat eta gutun bat atera zituen. Argazkian Irene Adler ageri zen, gaueko soineko dotorea jantzita. Gutunak honela zioen kanpoaldean: "Sherlock Holmes jaunari. Norbaitek jaso arte hemen utzi."

Holmesek zitzu bizian ireki zuen gutuna, eta hirurok batera irakurri genuen. Aurreko gauerdian idatzia zen, eta honela zioen:

NIRE MAITEA, SHERLOCK HOLMES JAUNA:

Benetan bikain jokatu duzu. Erabat engainatu nauzu. Su-alarmaren une arte, ez nuen inolako susmorik izan. Baina orduan, nire burua nola salatu nuen konturatzean, pentsatzen hasi nintzen. Hilabete batzuk lehenago ohartarazi ninduten zutaz. Esan zidaten Erregeak norbait kontratatuko balu, ziur aski zu izango zinatekeela. Zure helbidea ere eman zidaten. Hala ere, horren guztiaren ostean, zuk nahi zenuena erakustea lortu duzu.

Susmoak sortu zitzaizkidanean ere, oso zaila egin zitzaidan hain gizon atsegina eta zaharkitua zirudien apaiz batez gaizki pentsatzea. Baina badakizu, ni ere aktore gisa trebatu naiz. Gizonezkoen arropa ez da niretzat ezezaguna. Askotan aprobetxatzen dut ematen duen askatasuna. Beraz, Johni, gidariari, agindu nion zu zelatatzeko, eta bitartean, eskailerak igo nituen, nire ohiko jantziak jantzi eta behera jaitsi nintzen, zuek irten bezain pronto.

Ondoren, zure atzetik joan nintzen, eta horrela ziurtatu nuen Sherlock Holmes ospetsuarentzat benetan intereseko pertsona nintzela. Agian, ergelkeria izan zen agur egitea, baina hala ere, Temple-ra joan nintzen nire senarra ikustera.

Bien artean erabaki genuen hoberena ihes egitea zela, aurkari hain arriskutsu baten aurrean. Horregatik, biharko egunean zure bisitan habia hutsik aurkituko duzu.

Argazkiari dagokionez, zure bezeroak lasai egon daiteke. Beste gizon bat maite dut, eta bera ere ni. Erregeak nahi duena egin dezake, ni ez bainintzateke haren bidean jarriko; behin krudelki tratatu ninduen norbaitek ez du nire interferentziarik izango. Argazkia neure burua babesteko baino ez dut

gordetzen, etorkizunean berak nire aurka pausoak ematea erabakiko balu, beti izango baitut tresna bat nire alde. Hala ere, hemen uzten diot agian beretzat baliotsua izan daitekeen beste argazki bat.

Adeitasunez agurtzen zait, Sherlock Holmes jauna,

Bihotzez,

IRENE NORTON, jaiotzez ADLER.

—A ze emakumea—zein emakumea!” egin zuen oihu Bohemiako Erregeak, gutuna hirurok irakurri ondoren. “Ez al nizun esan zeinen bizkorra eta erabakita zen? Ez al zen errege aparta izango? Ez al da tamalgarria nire mailakoa ez izatea?”

Holmesek, hotz, erantzun zion: “Ezagututakoaren arabera, dama hori zure Maiestatearen mailatik oso goian dago.

—Tamalez, ezin izan dut zure Maiestatearen aferari amaiera arrakastatsua eman.

—Alderantziz, nire jauna, —erantzun zion Erregeak. —Ezin zen hobe amaitu. Badakit berak hitza beteko duela. Argazkia sutan balego bezain seguru dago.”

Holmesek burua apur bat makurtu zuen. — Pozten nau hori entzuteak, Maiestate.

—Eskertza zor dizut. Esadazu, nola sar zaitzaket? Hona hemen eraztun hau— Esmeraldazko sugeformako eraztun bat kendu eta esku-ahurrean eskaini zion.

“Zure Maiestateak badu nik oraindik gehiago estimatuko nukeen zerbait.

“ Esan besterik ez duzu.

“ Argazkia.

Erregeak harrিতuta begiratu zion.

Ireneren argazkia?” egin zuen oihu. Noski, nahi baduzu, zurea da.

Holmesek esker onez hartu zuen.

Eskerrik asko, Maiestate. Hortaz, ez dago gehiago egiterik. Egun ona izan dezazula.

Eta, esku-luzapena ikusi ere egin gabe, makurtu, eta nirekin abiatu zen bere etxera.

Horrela amaitu zen Bohemiako Erresumarentzako eskandalua ekar zezakeen auzia, eta Sherlock Holmesen plan onenak emakume baten azkartasunak gainditu zituen. Lehen, sarri egiten zituen ironiazko iruzkinak emakumeen bizkortasunaz, baina ez dut berritri halakorik entzun. Eta Irene Adlerrez edo haren argazkiaz hitz egiten duenean, beti erabiltzen du titulurik gorena eta errespetuzkoena: “Emakumea.”

